

KIMIKA BIZIRIK

- **Jakintza adarra:** Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- **Gradua/k:**
 - Kimika
 - Ingeniaritza Kimikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Sarriena auzoa z/g. Leioa

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

"Química en acción – Kimika Bizirik" EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Kimika eta Ingeniaritza Kimikoko Graduen jarduera bateratua da. Unibertsitatera sartzeko prest dauden ikasleei zuzenduta, laborategiko esperimentuak egiteko aukera ematen die, EHU-ko irakasleen gainbegirapean. Esperimentu bakoitzaren aurretik, kontzeptu teorikoak labur azaltzen dira, eta amaieran, egindako praktikarekin lotutako adibide errealak eskaintzen dira.

Ekimen honen helburu nagusia da ikasleen artean bokazio zientifikoak piztea, **Kimika eta Ingeniaritza Kimikora** hurbilduz, garapen zientifikoan oinarritzekoak diren arloak. Horrez gain, diziplina hauen ulermena hobetzea eta gaur egungo gizartean duten eragina nabarmentzea bilatzen du. Jarduera honek laborategiko ikaskuntza praktikoa sustatzen du, ingurune akademiko espezializatuan esperientzia formakuntza eskainiz. Esperimentuen xehetasunak hemen aurki daitezke: <http://kimikabizirik.wordpress.com>.

Ekintza esperimental hauek unibertsitateko irakasleen eta, bereziki, Batxilergoko lehen mailako irakasleen arteko komunikazio bide berri bat ere irekitzen dute. Egoera honek, elkarrizketa eta ikuspuntuen trukearen bidez, gure zereginen eta beharren ezagutza hobea ahalbidetzen du, eta, ziur aski, gure ikasleen formazioaren hobekuntzan eragingo du.

Horrela, "Kimika Bizirik – Química en Acción" ekintzaren helburuak horrela laburbiltzen dira:

1. Batxilergoko ikasleriak Kimikarekiko duen interesa sustatu/sortu.
2. Kimikak izan dezakeen imajina txarra gainditzea, bere aplikazioak erakutsiz.
3. Bigarren hezkuntzako irakasleriarekin harremanak mantentzea, berrikuntzei buruz informazioa eskainiz, ondoren ikasleriari transmititzeko.

4. Kimika eta Ingeniaritza Kimikoaren arteko desberdintasunak eta antzekotasunak azaltzea, eta biek ekoizpen-prozesuan duten garrantzia azaltzea.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

Ekintzan parte hartzen duten ikasleek Fakultateko irakaslearen azalpenak jasoko dituzte. Era berean irakasleen tutoretzapean saiakuntzak burutuko dituzte. Jarraian agertzen dira landuko diren edukiak:

- 1) Laborategi kimikoetako segurtasun arauen azalpena.
- 2) Erabiliko den tresneria kimikoaren azalpena.
- 3) Egingo diren praktikak hurrengoak dira:
 - 3.1) Saiakuntza errazak: molaren kontzeptua, kimi-luminiszentzia, katalisia, ioi-trukea.
 - 3.2) Urrezko zentimoa.
 - 3.3) Detektibe kimikoa.
 - 3.4) Makromolekulak
 - 3.5) Analgesikoen identifikazioa geruza fineko kromatografiaz.
 - 3.6) Hotzaren txokoa. Nitrogeno likidoarekin saiakuntzak.

Egingo diren esperimentuen kopurua aktibitatean zehar doituko da, aurreko urteetan zenbait kasutan denbora justu samarra izan baita.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Ekintzak 3-4 orduko iraupena izango du. Bertan goian aipatutako saiakuntzak burutuko dituzte ZTF-FCT-ko bi irakasleren tutoretzapean, praktikarekin lotutako aspektu teorikoak azaltzeko, praktika bakoitza egin aurretik, eta praktika egin ahala. Gainera, ikasleriaren jatorrizko zentroko irakasle tutoreak ere aktibitatea ikuskatzeko aukera du, nahi izatekotan.

Praktikak egiteko 9 azpitalde osatuko dira, bi ikaslekoak. Era berean, talde bakar batean, Fakultateko irakasleek egingo dituzten demostrazio esperimentu batzuk ikustera joango dira, eta horien inguruko azalpen teoriko jasoko dute. Eginiko saiakuntza bakoitzean, Fakultateko irakasleek antzeko prozedura bat erabiltzen dituzten benetako adibideak eskainiko dituzte.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-19	Euskera	Mañana	09:15 – 13:00	24
2026-01-20	Euskera	Mañana	09:15 – 13:00	12
2026-01-20	Castellano	Mañana	09:15 – 13:00	12
2026-01-21	Euskera	Mañana	09:15 – 13:00	24
2026-01-22	Castellano	Mañana	09:15 – 13:00	12
2026-01-22	Euskera	Mañana	09:15 – 13:00	12
2026-01-23	Euskera	Mañana	09:15 – 13:00	24